Adicionalmente, las cuentas anuales del ejercicio 2017 no incluyen ajustes realizados como consecuencia de errores detectados en el ejercicio.

3. EMAITZAK BANATZEA

Administratzaileek aurkeztu eta Akziodunen Batzar Nagusiak onartuko duela aurreikusten den 2017ko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena ondorengoa da:

3. DISTRIBUCIÓN DE RESULTADOS

La propuesta de distribución del resultado del ejercicio 2017, formulada por los Administradores y que se espera sea aprobada por la Junta General de Accionistas, es la siguiente:

(Euros)/(Euroak)	2017
Base de reparto/ Banaketa-oinarria	
Saldo de la cuenta de pérdidas y ganancias (beneficio)	86.303
Galeren eta irabazien kontuaren saldoa (mozkina)	
	86.303
Aplicación/ Aplikazioa	
A Reservas voluntarias/ Borondatezko erreserbetara	86.303
	86.303

4. ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK

Honakoak dira, urteko kontu hauek prestatzerakoan, Sozietateak erregistrorako eta baloraziorako erabili dituen irizpide nagusiak:

4. NORMAS DE REGISTRO Y VALORACIÓN

Los principales criterios de registro y valoración utilizados por la Sociedad en la elaboración de estas cuentas anuales son los siguientes:

4.1 Ibilgetu ukiezina

4.1 Inmovilizado intangible

Hasiera batean, bere kostuagatik baloratzen da ibilgetu ukiezina; kostua, erosteko prezioa edo ekoizteko kostua izan daiteke.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu ukiezina baloratzeko, bere kostua hartzen da kontuan eta kostu horri metatutako amortizazioa kentzen zaio eta, hala badagokio, narriaduragatiko erregistratutako zuzenketen metatutako zenbatekoa.

Bizitza erabilgarri zehatza duten aktibo ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira, ondasunen zenbatetsitako bizitza erabilgarriaren eta hondar-balioaren arabera. Aplikatutako amortizazio metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitzaren itxieran aztertzen dira eta, egoki irizten bada, era prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixterakoan, narriadura indizioen existentzia ebaluatzen da eta, kasua ematen bada, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatesten dira, egin beharreko balio-zuzenketak eginez.

Aktibo ukiezina, emakida akordioa

Zumaiako kirol portua eraikitzeko eta ustiatzeko emakidaren kostuak linealki amortizatzen dira emakida-aldian, 30 urteko aldian, hain zuzen ere.

4.2 Ibilgetu materiala

Hasiera batean, bere kostuagatik baloratzen da ibilgetu materiala; kostua erosteko prezioa edo ekoizteko kostua izan daiteke.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu materiala baloratzeko, bere kostua hartzen da kontuan eta kostu horri metatutako amortizazioa kentzen zaio eta, hala badagokio, narriaduragatiko erregistratutako zuzenketen metatutako zenbatekoa.

Bizitza erabilgarria luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze-kostuak horiek gertatzen diren ekitaldiko galeren eta irabazien kontuan sartzen dira. Produkzio-ahalmena handitzea edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatzea dakarten handitze edo hobekuntza

El inmovilizado intangible se valora inicialmente por su coste, ya sea éste el precio de adquisición o el coste de producción.

Después del reconocimiento inicial, el inmovilizado intangible se valora por su coste, menos la amortización acumulada y, en su caso, el importe acumulado de las correcciones por deterioro registradas.

Los activos intangibles son activos de vida útil definida y, por lo tanto, se amortizan sistemáticamente en función de la vida útil estimada de los mismos y de su valor residual. Los métodos y períodos de amortización aplicados son revisados en cada cierre de ejercicio y, si procede, ajustados de forma prospectiva. Al menos al cierre del ejercicio, se evalúa la existencia de indicios de deterioro, en cuyo caso se estiman los importes recuperables, efectuándose las correcciones valorativas que procedan.

Activo intangible, acuerdo de concesión

Los costes de la concesión de la construcción y explotación del puerto deportivo de Zumaia se amortizan linealmente en el periodo de concesión, que asciende a 30 años.

4.2 Inmovilizado material

El inmovilizado material se valora inicialmente por su coste, ya sea éste el precio de adquisición o el coste de producción.

Después del reconocimiento inicial, el inmovilizado material se valora por su coste, menos la amortización acumulada y, en su caso, el importe acumulado de las correcciones por deterioro registradas.

Las reparaciones que no representan una ampliación de la vida útil y los costes de mantenimiento son cargados en la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se producen. Los costes de ampliación o mejora que dan lugar a un aumento de la capacidad productiva

kostuak aktiboari gehitzen zaizkio aktibo horren balio handiago gisa eta, hala badagokio, ordezkatutako elementuen kontabilitate-balioari baja ematen zaio.

o a un alargamiento de la vida útil de los bienes, son incorporados al activo como mayor valor del mismo, dándose de baja, en su caso, el valor contable de los elementos sustituidos.

Ibilgetu materialaren elementuen amortizazioa, horien zenbatetsitako bizitza erabilgarrian zehar linealki egiten da, funtzionamenduan jartzeko moduan dauden unetik hasita.

La amortización de los elementos del inmovilizado material se realiza, desde el momento en el que están disponibles para su puesta en funcionamiento, de forma lineal durante su vida útil estimada.

Honakoak dira ibilgetu materialaren elementuentzako zenbatetsitako bizitza baliagarriko urteak:

Los años de vida útil estimada para los distintos elementos del inmovilizado material son los siguientes:

	Años de vida útil/ Bizitza baliagarriko urteak
Mobiliario y otras instalaciones/ Altzariak eta beste instalazio batzuk	6,66 años/urte
Equipos para procesos de información/ Informazio-prozesuetarako ekipoak	4 años/urte

Ekitaldi bakoitzaren itxieran, Sozietateak ibilgetu materialaren hondar-balioak, bizitza baliagarriak eta amortizatzeko metodoak aztertzen ditu eta, egokitzat jotzen bada, doitu egiten dira, era prospektiboan.

En cada cierre de ejercicio, la Sociedad revisa los valores residuales, las vidas útiles y los métodos de amortización del inmovilizado material y, si procede, se ajustan de forma prospectiva.

Sozietatearen ibilgetu materialeko elementu guztiak erabat amortizatuta daude.

La totalidad de los elementos del inmovilizado material de la Sociedad se encuentran completamente amortizados.

4.3 Finantzazkoak ez diren aktiboen balio-narriadura

4.3 Deterioro del valor de los activos no financieros

Ekitaldiaren itxieran, behintzat, Sozietatean aktibo ez-arrunten bat narriatuta egon daitekeenaren zantzurik ba ote dagoen ebaluatzen da, horiek eragina baldin badute aktibo horien balio berreskuragarrian, liburuetan duten balioaren azpian dagoen zenbatekoan jarriz. Zantzurik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarria zenbatesten da, balioak, narriaduraren ondorioz, izan duen galeraren nondik norakoa zehazteko.

La Sociedad evalúa al menos al cierre de cada ejercicio si existen indicios de pérdidas por deterioro de valor de su inmovilizado material, que reduzcan el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros. Si existe cualquier indicio, se estima el valor recuperable del activo con el objeto de determinar el alcance de la eventual pérdida por deterioro de valor.

Ibilgetuko elementu baten narriaduragatiko balio galera erregistratzen da kontabilitateko balio garbia zenbateko berreskuragarria baino handiagoa

Se registra la pérdida por deterioro del valor de un elemento del inmovilizado cuando su valor neto contable supere a su importe recuperable,

denean, azken hori, arrazoizko balioaren ken salmentaren kostuen eta erabilerako balioaren arteko zenbateko altuen gisa ulertuz.

Aurreko ekitaldietan aktibo baten narriaduragatiko balio galera aitortuak, haren zenbateko berreskuragarriari buruzko zenbatespenetako aldaketa bat gertatzen denean itzultzen dira, aktiboaren balioa, aktibo horrek, saneamendua egin izan ez balitz, liburuan izango lukeen balioaren mugarekin handituz.

2017ko abenduaren 31n oraindik amortizatu gabe dagoen finantzazkoa ez den Sozietatearen aktibo bakarra emakida-akordioa da, eta ez da eskudiru sortzailetzat jotzen.

Zumaiako kirol portua eraikitzeko eta ustiatzeko emakida-agiriaren arabera, emakida-epea amaitzen denean (2027. urtean), Sozietateak Administrazioari itzuliko dizkio emakidaren xede diren lursailak, obrak eta instalazioak, kontserbazioko egoera onean eta narriadurarik gabe. Narriadurarik balego, Sozietateari beharrezko konponketei dagokien zenbatekoa exijituko litzaioke.

Sozietatearen Administratzaileen iritziz, aktiboen kontabilitateko balioak ez du gainditzen haien balio berreskuragarria eta, ondorioz, 2017ko ekitaldian Sozietateak ez du ibilgetu materialen narriaduragatiko galerarik erregistratu.

entendiendo éste como el mayor importe entre su valor razonable menos los costes de venta y su valor en uso.

Las pérdidas por deterioro reconocidas en un activo en ejercicios anteriores son revertidas cuando se produce un cambio en las estimaciones sobre su importe recuperable, aumentando el valor del activo con el límite del valor en libros que el activo hubiera tenido de no haberse realizado el saneamiento.

El único activo no financiero de la Sociedad pendiente de amortizar al 31 de diciembre de 2017 es el acuerdo de concesión, y se considera como no generador de flujos de efectivo.

De acuerdo al documento de concesión para la construcción y explotación del puerto deportivo de Zumaia, a la finalización del plazo concesional (año 2027), la Sociedad se obliga a revertir a la Administración los terrenos, obras e instalaciones objeto de la concesión en buen estado de conservación y sin deterioros. Si existiesen, se exigirá a la Sociedad el importe correspondiente a las reparaciones necesarias.

Los Administradores de la Sociedad consideran que el valor contable de los activos no supera el valor recuperable de los mismos, por lo que en el ejercicio 2017 la Sociedad no ha registrado pérdidas por deterioro de los inmovilizados materiales

4.4 Finantza-aktiboak

Sailkapena eta balorazioa

Maileguak eta kobratzeko partidak

Kategoria honetan eragiketa komertzialetan eta ez-komertzialetan egindako krediduak erregistratzen dira; kobratzeko kopuru jakina edo jakingarria duten eta merkatu aktiboetan negoziatzen ez diren finantza-aktiboak sartzen dira; horietarako, Sozietateak egindako ordainketa guztia berreskuratzea aurreikusten da, zordunaren kaudimenari egotz dakizkioken arrazoiengatik izan ezik, hala denean.

4.4 Activos financieros

Clasificación y valoración

Préstamos y partidas a cobrar

En esta categoría se registran los créditos por operaciones comerciales y no comerciales, que incluyen los activos financieros cuyos cobros son de cuantía determinada o determinable, que no se negocian en un mercado activo y para los que se estima recuperar todo el desembolso realizado por la Sociedad, salvo, en su caso, por razones imputables a la solvencia del deudor.

Balantzean, hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira eta, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa hori izango da, hau da, emandako kontra-prestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak gehituta.

Hasierako kontabilizatzea egin ondoren, finantza-aktibo horiek kostu amortizatuan baloratzen dira.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialetako kredituak eta, halaber, epe laburrean kobratzekoak diren langileei emandako aurrerakinak eta kredituak, kobratzeko dibidenduak eta ondare-tresnei buruz galdatutako ordainketak balio nominalarekin baloratzen dira hasiera batean eta ondoren, beti ere, diru-fluxuak ez eguneratzeak garrantzirik ez badu.

Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak

Hor sartzen dira zorra adierazten duten balioak, mugaeguna finkatuta dutenak, zenbateko jakineko edo jakingarriko kobrantzak ekarriko dituztenak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak, Sozietateak mugaegunera arte gordetzeko asmo sendoa eta finantza gaitasuna duenean.

Balantzean, hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira eta, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa hori izango da, hau da, emandako kontra-prestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak gehituta.

Hasierako kontabilizatzea egin ondoren, finantza-aktibo horiek kostu amortizatuan baloratzen dira.

Indargabetzea

Finantza-aktiboaren diru-fluxuen gaineko kontratuzko eskubideak iraungi direnean edo transferitzen direnean ematen zaie baja finantza-aktiboei Sozietatearen balantzean, baldin eta transferentzia horretan jabetzari lotutako arrisku eta onura guztiak funtsean transmititzen badira.

En su reconocimiento inicial en el balance, se registran por su valor razonable, que, salvo evidencia en contrario, es el precio de la transacción, que equivale al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de transacción que les sean directamente atribuibles.

Tras su reconocimiento inicial, estos activos financieros se valoran a su coste amortizado.

No obstante, los créditos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tienen un tipo de interés contractual, así como los anticipos y créditos al personal, los dividendos a cobrar y los desembolsos exigidos sobre instrumentos de patrimonio, cuyo importe se espera recibir en el corto plazo, se valoran inicialmente y posteriormente por su valor nominal, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

Inversiones mantenidas hasta el vencimiento

Incluyen los valores representativos de deuda con una fecha de vencimiento fijada, con cobros de cuantía determinada o determinable, que se negocian en un mercado activo y para los que la Sociedad tiene la intención efectiva y la capacidad financiera de conservarlos hasta su vencimiento.

En su reconocimiento inicial en el balance, se registran por su valor razonable, que, salvo evidencia en contrario, es el precio de la transacción, que equivale al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de transacción que les sean directamente atribuibles.

Tras su reconocimiento inicial, estos activos financieros se valoran a su coste amortizado.

Cancelación

Los activos financieros se dan de baja del balance de la Sociedad cuando han expirado los derechos contractuales sobre los flujos de efectivo del activo financiero o cuando se transfieren, siempre que en dicha transferencia se transmitan sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad.

Sozietateak ez baditu funtsean finantza-aktiboaren arriskuak eta onurak laga edo atxiki, honi baja emango zaio kontrola atxikitzen ez bada. Sozietateak aktiboaren kontrola gordetzen badu, aktiboa kontabilizatzen jarraituko du, lagatako aktiboaren balio-aldaketekiko duen esposizioaren zenbatekoarekin, hau da, mantentzen duen inplikazioaren neurriko zenbatekoarekin, eta horri lotutako pasibo bat kontabilizatuko du.

Hartutako kontra-prestazio garbiaren (transakzio-kostuak kenduta eta lortutako aktiboak eta bere gain hartutako pasiboak kontuan hartuta) eta finantza-aktiboaren kontabilitate-balioaren (ondare garbian zuzenean kontabilizatutako zenbateko metatuak gehituta) arteko diferentziak erabakiko du aktiboari baja ematean izandako irabazia edo galera, eta ekitaldi horretako emaitzaren parte izango da.

Sozietateak, aktiboak lagatzen dituenean, jabetzarekin lotutako arrisku eta onurak funtsean atxikitzen baditu, ez die baja emango finantza-aktiboei. Kasu horietan, hartutako kontra-prestazioaren balioko finantza-pasibo bat kontabilizatuko du.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Finantza-aktiboak eskuratu ondoren sortzen diren interesak eta dibidenduak, diru-sarrera gisa kontabilizatuko dira galera-irabazien kontuan. Interesak, berriz, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita kontabilizatuko dira.

4.5 Finantza-aktiboen balio-narriadura

Ekitaldiaren itxieran, behintzat, Sozietatean finantza-aktiboen bat narriatuta egon daitekeenaren zantzurik ba ote dagoen ebaluatzen da, horiek eragina baldin badute aktibo horien balio berreskuragarrian, liburuetan duten balioaren azpian dagoen zenbatekoan jarriz. Zantzurik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarria

Si la Sociedad no ha cedido ni retenido sustancialmente los riesgos y beneficios del activo financiero, éste se da de baja cuando no se retiene el control. Si la Sociedad mantiene el control del activo, continua reconociéndolo por el importe al que está expuesta por las variaciones de valor del activo cedido, es decir, por su implicación continuada, reconociendo el pasivo asociado.

La diferencia entre la contraprestación recibida neta de los costes de transacción atribuibles, considerando cualquier nuevo activo obtenido menos cualquier pasivo asumido, y el valor en libros del activo financiero transferido, más cualquier importe acumulado que se haya reconocido directamente en el patrimonio neto, determina la ganancia o pérdida surgida al dar de baja el activo financiero y forma parte del resultado del ejercicio en que se produce.

La Sociedad no da de baja los activos financieros en las cesiones en las que retiene sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad. En estos casos, la Sociedad reconoce un pasivo financiero por un importe igual a la contraprestación recibida.

Intereses y dividendos recibidos de activos financieros

Los intereses y dividendos de activos financieros devengados con posterioridad al momento de la adquisición se registran como ingresos en la cuenta de pérdidas y ganancias. Los intereses se reconocen utilizando el método del tipo de interés efectivo.

4.4 Deterioro del valor de los activos financieros

La Sociedad evalúa al menos al cierre del cada ejercicio si existen indicios de pérdidas por deterioro de valor de sus activos financieros, que reduzcan el importe recuperable de dichos activos a un importe inferior al valor en sus libros. Si existe cualquier indicio, se estima el valor recuperable del activo con el objeto de determinar el alcance de la eventual

zenbatesten da, balioak, narriaduraren ondorioz, izan duen galeraren nondik norakoa zehazteko.

Sozietatearen Administratzaileen iritziz, aktiboen kontabilitateko balioak ez du gainditzen haien balio berreskuragarria eta, ondorioz, 2016ko ekitaldian Sozietateak ez du ibilgetu materialen narriaduragatiko galerarik erregistratu.

Zor-tresnak

Narriadura izan dela erakusten duen ebidentzia objektiboa dago zor-tresnetan, zor-tresnatzat ulertuta kobratzeko kontuak, krediuak eta zorra adierazten duten balioak, hasierako kontabilizatzearen ondoren, aurreikusitako etorkizuneko diru-fluxuetan eragin negatiboa duen gertaera bat izan denean.

Sozietateak narriatutako aktibotzat jotzen ditu (hala-nolako aktiboak) narriadura izan dutela objektiboki agerikoa den zor-tresnak; funtsean, ordaindu gabeak, bete ez direnak, berfinantzazioak, eta itundutako etorkizuneko diru-fluxu guztiak ez berreskuratzeko edo kobrantzan atzerapena gertatzeko aukera agerian uzten duten datuak egoteari dagozkie ebidentzia horiek. Zordun komertzialetarako eta kobratzeko bestelako kontuetarako, Sozietateak hala-nolako aktibotzat jotzen ditu kobratuak izateko ziurtasunik ez duten hamabi hilabete edo gehiagotan mugaeguna gaindituta.

Kostu amortizatuaren bidez baloratutako finantza-aktiboen kasuan, narriaduragatiko galeren zenbatekoa liburu-balioaren eta aurreikusitako etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia izango da; kalkulua egiteko, hasierako kontabilizatzean kalkulatutako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira fluxuak. Interes-tasa aldakorreko finantza-aktiboetan, urteko kontuen itxiera-egunari dagokion interes-tasa efektiboa erabiliko da.

Narriaduraren atzera itzultze edo lehengoratzea galera-irabazien kontuko sarrera gisa kontabilizatzen da eta bere muga izango da atzera

pérdida por deterioro de valor.

Los Administradores de la Sociedad consideran que el valor contable de los activos no supera el valor recuperable de los mismos, por lo que en el ejercicio 2016 la Sociedad no ha registrado pérdidas por deterioro de los inmovilizados materiales.

Instrumentos de deuda

Existe una evidencia objetiva de deterioro en los instrumentos de deuda, entendidos como las cuentas a cobrar, los créditos y los valores representativos de deuda, cuando después de su reconocimiento inicial ocurre un evento que supone un impacto negativo en sus flujos de efectivo estimados futuros.

La Sociedad considera como activos deteriorados (activos dudosos) aquellos instrumentos de deuda para los que existen evidencias objetivas de deterioro, que hacen referencia fundamentalmente a la existencia de impagados, incumplimientos, refinanciaciones y a la existencia de datos que evidencien la posibilidad de no recuperar la totalidad de los flujos futuros pactados o que se produzca un retraso en su cobro. Para los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, la Sociedad considera como activos dudosos aquellos saldos que tienen partidas vencidas a más de doce meses para las que no existe seguridad de su cobro y los saldos de empresas que han solicitado un concurso de acreedores.

En el caso de los activos financieros valorados a su coste amortizado, el importe de las pérdidas por deterioro es igual a la diferencia entre su valor en libros y el valor actual de los flujos de efectivo futuros que se estima van a generar, descontados al tipo de interés efectivo existente en el momento del reconocimiento inicial del activo. Para los activos financieros a tipo de interés variable se utiliza el tipo de interés efectivo a la fecha de cierre de las cuentas anuales.

La reversión del deterioro se reconoce como un ingreso en la cuenta de pérdidas y ganancias y tiene como límite el valor en libros del activo

itzultzen edo lehengoratzen den datan finantza-aktiboak izango lukeen liburu-balioa, balio-narriadurarik kontabilizatu izan ez balitz.

financiero que estaría registrado en la fecha de reversión si no se hubiese registrado el deterioro de valor.

4.6 Finantza-pasiboak

Sailkapena eta balorazioa

Zorrak eta ordaintzeko partidak

Hor sartzen dira Sozietatearen trafiko eragiketetako ondasunen eta zerbitzuen erosketagatik sortutako finantza-pasiboak eta tresna deribatuak izan gabe, eragiketa ez-komertzialetatik sortzen diren zorrak.

Balantzean, hasiera batean, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira eta, kontrako ebidentziarik ezean, hori izango da transakzioaren prezioa, hau da, hartutako kontra-prestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz daitezkeen transakzio-kostuak gehituta.

Hasierako kontabilizatzea egin ondoren, finantza-pasibo horiek kostu amortizatuan baloratzen dira. Sortutako interesak galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, diru-fluxuak ez eguneratzeak garrantzirik ez duenean, eragiketa komertzialetan egindako zorrak balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, zor horiek epe laburrean ordaintzea aurreikusten denean eta kontratuzko interes-tasarik ez dutenean, eta hirugarrenek partaidetzei buruz galdatutako ordainketak epe laburrean ordaintzekoak direnean.

Indargabetzea

Obligazioa azkentzen denean emango dio baja Sozietateak finantza-pasiboari.

Mailegu-emaileak eta mailegu-hartzaileak zor-tresna bat trukatzen badute, eta baldintzak funtsean ezberdinak badira, jatorrizko finantza-pasiboaren baja erregistratuko da eta sortzen den finantza-pasibo berria kontabilizatuko da. Era berean erregistratuko da finantza-pasibo berri baten uneko baldintzak funtsean aldatzen badira.

4.6 Pasivos financieros

Clasificación y valoración

Débitos y partidas a pagar

Incluyen los pasivos financieros originados por la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la Sociedad y los débitos por operaciones no comerciales que no son instrumentos derivados.

En su reconocimiento inicial en el balance, se registran por su valor razonable, que, salvo evidencia en contrario, es el precio de la transacción, que equivale al valor razonable de la contraprestación recibida ajustado por los costes de transacción que les sean directamente atribuibles

Tras su reconocimiento inicial, estos pasivos financieros se valoran por su coste amortizado. Los intereses devengados se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias, aplicando el método del tipo de interés efectivo.

No obstante, los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tengan un tipo de interés contractual, así como los desembolsos exigidos por terceros sobre participaciones, cuyo importe se espera pagar en el corto plazo, se valoran por su valor nominal, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

Cancelación

La Sociedad da de baja un pasivo financiero cuando la obligación se ha extinguido.

Cuando se produce un intercambio de instrumentos de deuda con un prestamista, siempre que éstos tengan condiciones sustancialmente diferentes, se registra la baja del pasivo financiero original y se reconoce el nuevo pasivo financiero que surge. De la misma forma se registra una modificación sustancial de las condiciones actuales de un pasivo

Finantza-pasibo bati edo zati bati baja ematen zaionean, pasibo horren liburu-balioaren eta ordaindutako kontra-prestazioaren arteko diferentzia ekitaldi horretako galera-irabazien kontuan kontabilizatuko da; kontra-prestazioan sartuko dira transakzioari egotz dakizkiokeen kostuak eta, halaber, emandako aktiboak edo bere gain hartutako pasiboak, eskudirua ez den aktiboren bat laga bada edo erakundeak beste pasiboren bat bere gain hartu badu.

Trukatutako zor-tresnen baldintzak funtsean desberdinak ez badira, jatorrizko finantza-pasiboari ez zaio balantzean baja emango, eta ordaindutako komisioen zenbatekoa erregistratuko da kontabilitate-balioaren doikuntza gisa. Finantza-pasiboaren kostu amortizatua kalkulatzeko, interes-tasa efektiboa aplikatuko da; interes-tasa efektiboa izango da finantza-pasiboak aldaketa egunean duen liburu-balioa baldintza berrien arabera ordaindu beharreko diru-fluxuekin berdintzen duena.

Ondore horietarako, kontratuen baldintzak funtsean desberdinak direla ulertuko da mailegu-emailea hasierako mailegua eman zuen bera bada eta finantza-pasibo berriaren diru-fluxuen balio eguneratuaren (komisio garbiak barne) eta jatorrizko finantza-pasibotik geratzen diren diru-fluxuen balio eguneratuaren arteko diferentzia %10ekoa edo handiagoa denean, bi balio eguneratuak jatorrizko finantza-pasiboaren interes-tasa efektiboan kalkulatuta.

4.7 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Epigrafe honetan sartzen dira jarraian jasotzen diren eskakizun guztiak betetzen dituzten kaxako eskudirua, bankuetako kontu korronteak eta aktiboen aldi baterako gordailuak eta erosketak:

- Diru bihur daitezkeenak.
- Eskuratu zirenean, epemuga hiru hilabetetik gorakoa ez zutenak.
- Balio-aldaketak izateko arrisku handirik ez dutenak.
- Sozietatearen diruzaintza kudeatzeko politika normalaren parte direnak.

financiero.
La diferencia entre el valor en libros del pasivo financiero, o de la parte del mismo que se haya dado de baja, y la contraprestación pagada, incluidos los costes de transacción atribuibles, y en la que se recoge asimismo cualquier activo cedido diferente del efectivo o pasivo asumido, se reconoce en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que tenga lugar.

Cuando se produce un intercambio de instrumentos de deuda que no tengan condiciones sustancialmente diferentes, el pasivo financiero original no se da de baja del balance, registrando el importe de las comisiones pagadas como un ajuste de su valor contable. El nuevo coste amortizado del pasivo financiero se determina aplicando el tipo de interés efectivo, que es aquel que iguala el valor en libros del pasivo financiero en la fecha de modificación con los flujos de efectivo a pagar según las nuevas condiciones.

A estos efectos, se considera que las condiciones de los contratos son sustancialmente diferentes cuando el prestamista es el mismo que otorgó el préstamo inicial y el valor actual de los flujos de efectivo del nuevo pasivo financiero, incluyendo las comisiones netas, difiere al menos en un 10% del valor actual de los flujos de efectivo pendientes de pago del pasivo financiero original, actualizados ambos al tipo de interés efectivo del pasivo original.

4.7 Efectivo y otros activos líquidos equivalentes

Este epígrafe incluye el efectivo en caja, las cuentas corrientes bancarias y los depósitos y adquisiciones temporales de activos que cumplen con todos los siguientes requisitos:

- Son convertibles en efectivo.
- En el momento de su adquisición su vencimiento no era superior a tres meses.
- No están sujetos a un riesgo significativo de cambio de valor.
- Forman parte de la política de gestión normal de tesorería de la Sociedad.

4.8 Diru-laguntzak

Diru-laguntzak itzuli behar ez diren kopuru gisa kalifikatzen dira, horiek emateko ezarritako baldintzak bete direnean, eta une horretan zuzenean kontabilizatzen dira ondare garbian, dagokion zerga-eragina kenduta.

Itzuli beharrekoak diren diru-laguntzak Sozietatearen pasibo gisa kontabilizatzen dira itzuli beharrekoak ez diren kopurutzat kalifikatu bitartean, eta une horretara arte, ez da inolako sarrerarik kontabilizatuko.

Gastu espezifikoak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko galera-irabazien kontura eramaten dira. Aktibo materialak eskuratzeko jasotako diru-laguntzak ekitaldiko sarrera gisa egozten dira, haien amortizazioaren proportzioan.

4.9 Irabazien gaineko zergak

Ekitaldiko mozkinen gaineko zergaren gastua, zerga arruntari (ekitaldiko zerga-oinarriari, dagokion karga-tasa aplikatu eta hobari eta kenkariak kentzearen emaitza) ekitaldi horretan, kontabilizatutako zerga geroratuengatik, aktiboetan eta pasiboetan, gertatutako aldaketak batuta kalkulatzen da. Galera-irabazien kontuan jasotzen da, zuzenean ondare garbian kontabilizatzen diren transakzioei dagokienean izan ezik; kasu horretan, dagokion zerga ere ondare garbian kontabilizatzen da.

Zerga geroratuak, balantzearen datan, aktiboen eta pasiboen oinarri fiskalaren eta haien kontabilitate-balioen artean dauden denborazko diferentzietarako erregistratzen dira. Zerga ondoreetarako, elementu horri emandako zenbatekoa jotzen da ondare elementu baten oinarri fiskal gisa.

4.8 Subvenciones

Las subvenciones se califican como no reintegrables cuando se han cumplido las condiciones establecidas para su concesión, registrándose en ese momento directamente en el patrimonio neto, una vez deducido el efecto impositivo correspondiente.

Las subvenciones reintegrables se registran como pasivos de la Sociedad hasta que adquieren la condición de no reintegrables, no registrándose ningún ingreso hasta dicho momento.

Las subvenciones recibidas para financiar gastos específicos se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en el que se devenguen los gastos que están financiando. Las subvenciones recibidas para adquirir activos materiales se imputan como ingresos del ejercicio en proporción a su amortización.

4.9 Impuestos sobre beneficios

El gasto por impuesto sobre beneficios del ejercicio se calcula mediante la suma del impuesto corriente, que resulta de aplicar el correspondiente tipo de gravamen a la base imponible del ejercicio menos las bonificaciones y deducciones existentes, y de las variaciones producidas durante dicho ejercicio en los activos y pasivos por impuestos diferidos registrados. Se reconoce en la cuenta de pérdidas y ganancias, excepto cuando corresponde a transacciones que se registran directamente en el patrimonio neto, en cuyo caso el impuesto correspondiente también se registra en el patrimonio neto.

Los impuestos diferidos se registran para las diferencias temporarias existentes en la fecha del balance entre la base fiscal de los activos y pasivos y sus valores contables. Se considera como base fiscal de un elemento patrimonial el importe atribuido al mismo a efectos fiscales.

Denborazko diferentzien zerga-eragina, balantzearen "Zerga geroratuen aktiboak" eta "Zerga geroratuen pasiboak" epigrafeetan jasotzen da.

Sozietateak zerga geroratuen pasibo bat aitortzen du zergapeko denborazko diferentzia guztietarako, indarrean dagoen araudian aurreikusitako salbuespenetarako izan ezik.

Sozietateak zerga geroratuen aktibo bat aitortzen du denborazko diferentzia kengarrietarako, erabili gabeko kreditu fiskaletarako eta oraindik konpentsatu ez diren zerga-oinarri negatiboetarako, Sozietateak, etorkizunean, aktibo horien aplikazioa ahalbidetuko duten mozkin fiskalak izango dituela probablea den neurrian, indarrean dagoen araudian aurreikusitako salbuespenetarako izan ezik.

Ekitaldi bakoitzaren itxiera-egunean, Sozietateak zerga geroratuen aitortutako aktiboak eta aurrez aitortu ez direnak ebaluatzen ditu. Ebaluazio horretan oinarrituta, Sozietateak baja emango dio aurrez aitortutako aktibo bati, hura berreskuratzea dagoeneko probablea ez bada, edo zerga geroratuaren aurrez aitortu gabeko edozein aktibo kontabilizatuko du, Sozietateak haren aplikazioa ahalbidetuko duten etorkizuneko mozkin fiskalak izatea probablea baldin bada.

Zerga geroratuen aktiboak eta pasiboak, lehengoratzeko unean aurreikusten diren karga-tasen arabera baloratuko dira, indarrean dagoen onartutako araudia betez, eta arrazionalki zerga geroratuen aktiboak berreskuratzea edo pasiboak ordaintzea espero den moduaren arabera.

Zerga geroratuen aktiboak eta pasiboak ez dira deskontatzen eta aktibo eta pasibo ez-arrunt gisa sailkatzen dira, kobratzea edo likidatzea espero den data kontuan izan gabe.

4.10 Aktiboen eta pasiboen sailkapena: arruntak eta ez-arruntak

Aktiboak eta pasiboak arrunt eta ez-arrunt gisa sailkatuta aurkezten dira balantzean. Ondore horietarako, aktiboak eta pasiboak arrunt gisa sailkatuko dira Sozietatearen ustiapenaren ziklo

El efecto impositivo de las diferencias temporarias se incluye en los correspondientes epígrafes de "Activos por impuesto diferido" y "Pasivos por impuesto diferido" del balance.

La Sociedad reconoce un pasivo por impuesto diferido para todas las diferencias temporarias imponibles, salvo, en su caso, para las excepciones previstas en la normativa vigente.

La Sociedad reconoce los activos por impuesto diferido para todas las diferencias temporarias deducibles, créditos fiscales no utilizados y bases imponibles negativas pendientes de compensar, en la medida en que resulte probable que la Sociedad disponga de ganancias fiscales futuras que permitan la aplicación de estos activos, salvo, en su caso, para las excepciones previstas en la normativa vigente.
En la fecha de cierre de cada ejercicio la Sociedad evalúa los activos por impuesto diferido reconocido y aquellos que no se han reconocido anteriormente. En base a tal evaluación, la Sociedad procede a dar de baja un activo reconocido anteriormente si ya no resulta probable su recuperación, o procede a registrar cualquier activo por impuesto diferido no reconocido anteriormente siempre que resulte probable que la Sociedad disponga de ganancias fiscales futuras que permitan su aplicación.

Los activos y pasivos por impuesto diferido se valoran a los tipos de gravamen esperados en el momento de su reversión, según la normativa vigente aprobada, y de acuerdo con la forma en que racionalmente se espera recuperar o pagar el activo o pasivo por impuesto diferido.

Los activos y pasivos por impuesto diferido no se descuentan y se clasifican como activos y pasivos no corrientes, independientemente de la fecha esperada de realización o liquidación

4.10 Clasificación de los activos y pasivos entre corrientes y no corrientes

Los activos y pasivos se presentan en el balance clasificados entre corrientes y no corrientes. A estos efectos, los activos y pasivos se clasifican como corrientes cuando están vinculados al ciclo normal

normalari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, jasotzea edo likidatzea aurreikusten denean eta gehienez ere urtebeteko epearen barruan, aktibo edo pasibo horiek mugaegunera iritsi, besterendu edo jasoko direla aurreikusten denean; negoziazio-helburuekin mantentzen dira edo eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk izaten dira, eta haien erabilera ez dago urtebetetik gorako aldira mugatuta. Hala ez bada, aktibo eta pasibo ez-arrunt gisa sailkatzen dira.

de explotación de la Sociedad y se esperan vender, consumir, realizar o liquidar en el transcurso del mismo y su vencimiento, enajenación o realización se espera que se produzca en el plazo máximo de un año; se mantienen con fines de negociación o se trata de efectivo y otros activos líquidos equivalentes cuya utilización no está restringida por un periodo superior a un año. En caso contrario se clasifican como activos y pasivos no corrientes.

4.11 Sarrerak eta gastuak

Sortzapen printzipioaren arabera, sarrerak eta gastuak, gertatzen direnean erregistratzen dira, noiz kobratzen edo ordaintzen diren kontuan hartu gabe.

4.11 Ingresos y gastos

De acuerdo con el principio de devengo, los ingresos y gastos se registran cuando ocurren, con independencia de la fecha de su cobro o de su pago.

5. IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materialean ez da mugimendurik egon, 2017ko eta 2016eko ekitaldietan zehar.

Erabiltzen den ibilgetu materiala 27.223 eurokoa da eta erabat amortizatuta dago 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n.

5. INMOVILIZADO MATERIAL

No ha habido movimientos en el inmovilizado material durante los ejercicios 2017 y 2016.

El inmovilizado material en uso asciende a 27.223 euros y se encuentra totalmente amortizado al 31 de diciembre de 2017 y 2016.

6. IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezina osatzen duten partiden xehetasunak eta mugimenduak hauek dira:

6. INMOVILIZADO INTANGIBLE

El detalle y los movimientos de las distintas partidas que componen el inmovilizado intangible son los siguientes:

(Euros)/(Euroak)	Saldo inicial/ Hasierako saldoa	Dotaciones/ Hornidurak	Saldo final/ Amaierako saldoa
Ejercicio 2017/2017ko ekitaldia			
Coste / Kostua			
Activo intangible, acuerdo de concesión/ Aktibo ukiezina, emakida akordioa	11.510.480	-	11.510.480
Amortización acumulada / Amortizazio metatua			
Activo intangible, acuerdo de concesión/ Aktibo ukiezina, emakida akordioa	(7.289.970)	(383.682)	(7.673.652)

Valor neto contable/ Kontabilitateko balio garbia	**4.220.510**	**(383.682)**	**3.836.828**

(Euros)/(Euroak)	Saldo inicial/ Hasierako saldoa	Dotaciones/ Hornidurak	Saldo final/ Amaierako saldoa
Ejercicio 2016/2016eko ekitaldia			
Coste / Kostua			
Activo intangible, acuerdo de concesión/ Aktibo ukiezina, emakida akordioa	11.510.480	-	11.510.480
Amortización acumulada/ Amortizazio metatua			
Activo intangible, acuerdo de concesión/ Aktibo ukiezina, emakida akordioa	(6.906.288)	(383.682)	(7.289.970)
Valor neto contable/ Kontabilitateko balio garbia	**4.604.192**	**(383.682)**	**4.220.510**

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, ez dago espainiar lurraldetik kanpoko ibilgetu ukiezineko elementurik, ezta erabat amortizatutakorik ere. Ez zegoen erosteko konpromiso irmorik ere.

